

Bezeroarekiko harremanak

Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, gure web orrian harremanetarako zenbakia egongo da eskuragarri. Lan-ordutegian aktiboa, zalantzak, ezustekoak eta gure zerbitzuak nahi dituenaren interesa kontuan hartu ahal izateko.

Eskaintzak (Gabonak, egun bereziak...) eta bazkide egiteko aukera egongo dira, epe luzera edo laburrera. Nahi duenarentzat probako aste bat ere eskainiko dugu, gure zerbitzuak zure negozioarentzat duen errentagarritasuna ikus dezan.

Bestalde, BioDental Recycle web orrian, gure erabiltzaileek beren iritziak, iradokizunak eta esperientziak adierazteko gune bat dago, eta, horri esker, entzun eta erantzun ahal izango diegu, eta, era berean, guri, enpresa gisa, hobetzeko aukera ematen digu, beste erabiltzaile batzuek aldezturik gure zerbitzuak erabiltzeko konfiantza izan dezaten.

Horrela, gardenagoak dira eta bezero-komunitatearen eta enpresaren arteko hurbiltasuna ematen dute.